



DIARIO DE SESIONES  
DEL  
**PARLAMENTO DE NAVARRA**

---

IX Legislatura

Pamplona, 19 de septiembre de 2018

NÚM. 12

---

**TRANSCRIPCIÓN LITERAL**

**COMISIÓN ESPECIAL PARA LA ELABORACIÓN DE UNA  
NUEVA LEY FORAL DEL EUSKERA**

PRESIDENCIA DEL ILMO. SR. D. DABID ANAUT PEÑA

**SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 19 DE SEPTIEMBRE DE 2018**

**ORDEN DEL DÍA**

— Comparecencia de representantes de Sortzen Elkarte (Euskal Eskola Publiko berriaren aldeko elkarte) y de Nafarroako Ikastolen Elkarte.

(Comienza la sesión a las 12 horas y 18 minutos).

**Comparecencia de representantes de Sortzen Elkarte (Euskal Eskola Publiko berriaren aldeko elkartea) y de Nafarroako Ikastolen Elkarte.**

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Egun on. Hasiara emango diogu gaurko Batzorde Bereziaren saio honi. Dakizuen bezala, gaurko saioa gorde genuen aurreikusita zegoelako irakaskuntza eta hizkuntzaren alorreko eragileak deitzeko. Jakina da euskararen legeak hori arautu izan duela eta euskararen lege batek alor hori arautu beharko luke ezinbestean. Beraz, logika osoa dauka hemen ordezkari hauek ere egotea. Gaur etorri dira esparru honetan ari diren bi eragile, hain zuzen ere, Ikastolen Elkarte eta Sortzen Elkarte. Orduan, alde batetik izango da Nafarroako Ikastolen Elkarte eta haren izenean Josu Reparaz, Elkarteko zuzendaria, egongo da. Beste alde batetik, Sortzen Elkarte, sare publikoko ikastetxetan lan egiten duen erakundea, eta haren izenean eta ordezkari gisa Sergio Iribarren Elkarteko kidea etorri da.

*[Buenos días. Vamos a comenzar con esta sesión de hoy de la Comisión Especial. Como saben, la sesión de hoy la reservamos porque estaba previsto que se llamara a actores del ámbito de la enseñanza y la lengua. Se sabe que la ley del euskera ha regulado eso y que una ley del euskera debería regular eso necesariamente. Por lo tanto, tiene toda la lógica que estén estos representantes aquí. Hoy han venido dos actores que trabajan en este campo, concretamente, la Asociación de Ikastolas y la Asociación Sortzen. Entonces, por un lado, estará la Asociación de Ikastolas de Navarra y en su nombre Josu Reparaz, director de la Asociación. Por otro lado, la Asociación Sortzen, institución que trabaja en las escuelas de la red pública, y en su nombre ha venido representando a la Asociación Sergio Iribarren, miembro de la Asociación.]*

Mekanika ezagutzen dugu. Ordu erdiko tartea izango dute, hamabost minutu bakoitzak, beren ikuspegia azaltzeko eta ekarpena egiteko. Horrenbestez, eta gehiago luzatu gabe, hitza emango diogu, hasteko, Sergio Iribarren Sortzen Elkarteko ordezkariari. Zurea da hitza.

*[Conocemos la mecánica. Tendrán un margen de media hora, quince minutos cada uno, para expresar su punto de vista y sus aportaciones. Por lo tanto y sin extenderme más, le damos la palabra, para comenzar, a Sergio Iribarren, representante de la Asociación Sortzen. Tiene usted la palabra.]*

SR. REPRESENTANTE DE SORTZEN ELKARTEA (Sr. Iribarren Galbete): Hasteko, mila esker gonbidapena egiteagatik. Gustura etorri gara Batzorde Berezi honetara parte hartzera. Sortzen Elkartean 27 urte daramate edo daramagu hor lanean, bereziki, Anaut jaunak esan duen bezala, hizkuntza publikoko euskarazko ikastetxeetan. Hezkuntza komunitate osoarekin egiten dugu lan, ez bakarrik gurasoen elkarrekin, baizik eta eskoletan dauden bestelako langileekin ere, bai irakasleekin bai besteekin. Zuek jakin dezazuen, Elkartearen helburu nagusia euskal eskola publiko berri hori lortzea da eta bide horretan ezinbestekoa da ikasle euskaldun eleanitzak sortuko dituen eskola lortzea.

*[Para empezar, muchas gracias por la invitación. Hemos venido felices para participar en esta Comisión Especial. En la Asociación Sortzen llevan o llevamos 27 años trabajando especialmente, como ha dicho el señor Anaut, en las escuelas de euskera de la educación]*

*pública. Trabajamos con toda la comunidad educativa, no solo con las asociaciones de padres y madres, sino también con el resto de trabajadores de los centros educativos, tanto con el profesorado como con el resto. Para que sepan, el principal objetivo de la Asociación es lograr esa nueva escuela pública y en ese camino es imprescindible logra una escuela que cree estudiantes vascófonos plurilingües.]*

27 urte hauetan bereziki, gogora ekarri behar dugu, bereziki hemen Nafarroan gure Elkartearen zeregin nagusia izan dela administraziotik eta UPN-ren erregimen garai ilunaren euskarazko irakaskuntzaren kontra egon diren oztopoei eta arazoei aurre egitea izan da. Hori orain dela bost urte, momentu horri begirada botatzerik besterik ez dugu ikusteko hor urtero-urtero administraziotik edo erregimenetik ere euskarazko D ereduaren kontrako erasoaldiak etortzen ziren etengabe. Orduan, gure Elkartea horretan aritu da eta hor buru-belarri ere familien eta aipatu ditugun irakasleen edo bestelakoen, gure eskoletan aritzen diren profesional horien kontrako erasoei aurre egiteko. Eta horren aurrean ere jarraitzen dugu eskola publikoaren edo publikotasun horren alde lan egiten, euskarako irakaskuntzaren defentsan.

*[En estos 27 años sobre todo tenemos que recordar que aquí en Navarra el principal quehacer de nuestra Asociación ha sido hacer frente a los problemas y obstáculos que han estado en contra de la educación en euskera desde la administración y la oscura época del régimen de UPN. Solo tenemos que echar la vista atrás y ver cómo era la situación hace cinco años para ver que ahí se daban continuamente ataques en contra del modelo D en euskera por parte de la administración o régimen año tras año. Entonces, nuestra Asociación ha trabajado atentamente en ello para hacer frente a los ataques en contra de las familias y profesorado y demás que hemos nombrado, los profesionales que trabajan en nuestras escuelas. Y frente a eso seguimos trabajado a favor de esa escuela pública o de la publicidad, defendiendo la enseñanza en euskera.]*

Orain, gaur egun, euskaren lege berri baten inguruan ari garen momentu honetan inportantea ikusten genuen, hemen ere ibilbide bat izan dugulako. Eta ibilbidea ez da batere erraza izan. Ibilbide horretan malko asko erori dira, baita izerdi asko ere bota behar izan dugu. Hau ez da arrosen bide bat izan. Bide horretan nafartar asko baztertutak izan dira eta hori argi eta garbi utzi nahi izan genuen.

*[Ahora, hoy en día, en este momento en el que estamos trabajando en una nueva ley del euskera lo veíamos importante, ya que aquí hemos tenido una trayectoria. Y el camino no ha sido nada fácil. En ese camino se han derramado muchas lágrimas y también hemos sudado mucho. Este no ha sido un camino de rosas. En ese camino muchos navarros han sido apartados y eso lo queríamos dejar claro.]*

Gaur egun ere eramaten ditugun lan ildoen artean edo ekimenen artean bat bereziki aipatu nahi genuen gaur eta da 2015etik hemen, areto honetan, dauden indar politiko batzuek ere bultzatua, 2015ean euskaren legea aldatzen da. Aldaezina zirudien legea aldatu egin zen 2015eko otsailean, oker ez baldin banago, eta handik aurrera D eredia aukeratzea posiblea izan zen Nafarroa osoko ikastetxe publiko guztietan. 2015era arte debekatua zegoen D eredia aukeratzea zenbait eskola publikoetan, baina handik aurrera posiblea izan zen. Eta hor gure Elkartek arduraz hartu zuen erronka eta hor ibili gara, herriz herri ere. Eta aipatu dugun

bezala, euskararen legeak eta handik atzera 40 urtetako diktaturapean ere euskararen kontra botatako edo egindako bazterkeria guztiari buelta eman zion eta bestelako ikuspegi bat eman zen. Familiaren aurrean ere erakutsi zuen Iruñerrian edo Nafarroako beste zonaldeetan D ereduak 40 urteko esperientzia baduela, euskarazko murgiltze ereduak badaukala esperientzia eta badaukala hor milaka ikasle hortik pasa direnak. Gure eskoletatik ere milaka ikasle atera dira euskaldunak eta eleanitzak. Hori posiblea dela ikusi zen.

*[Entre las líneas de trabajo o iniciativas que tenemos en la actualidad, hoy nos gustaría comentar una en especial y es que en 2015 aquí, en esta sala, impulsado también por algunas de las fuerzas políticas presentes, se cambió la ley del euskera. En febrero de 2015, si no me equivoco, la ley que parecía incambiable se cambió, y desde entonces fue posible elegir el modelo D en todos los centros educativos públicos de toda Navarra. Hasta 2015 estaba prohibido elegir el modelo D en diversas escuelas públicas, pero de ahí en adelante fue posible. Y ahí nuestra Asociación tomó el reto con responsabilidad y hemos estado trabajando en ello, también de pueblo en pueblo. Y como hemos comentado, la ley del euskera le dio la vuelta a toda la exclusión realizada en contra del euskera hasta entonces y en los 40 años bajo la dictadura y ofreció otro punto de vista. Demostró también delante de las familias que en Pamplona o en otras zonas de Navarra el modelo D tiene una experiencia de 40 años, que el modelo de inmersión en euskera tiene experiencia y que tiene ahí a miles de estudiantes que han pasado por el mismo. De nuestras escuelas también han salido miles de estudiantes vascoparlantes y plurilingües. Se vio que eso era posible.]*

Eta hor ibili gara. Caparroson, Erriberrin, Peraltan, Cintruénigon edo Zarrakaztelun egon gara, hor interesa erakutsi duten familiei ere D ereduaren dohainak eta bestela benetako aurpegia erakusten. Era berean, 2015etik familiei esker sortu diren D ereduko lerro horiekin ere elkarlanean aritu gara. Gogoratu behar dugu gaur egun Tafallan, Caparroson, Lodosan, Erriberrin, Azkoienen, Barasoainen, Allon, Antsoainen eta Sesman D ereduko lerroak ireki dituztela. Familiek ireki dituzte. Hor beraiekin ari gara lanean.

*[Y en eso hemos trabajado. Hemos estado en Caparros, Olite, Peralta, Cintruénigo o Carcastillo, mostrándole la verdadera cara y las características del modelo D a las familias que han mostrado interés. Al mismo tiempo, también hemos trabajado conjuntamente con esas líneas del modelo D que surgieron desde 2015 gracias a las familias. Tenemos que recordar que actualmente se han abierto líneas del modelo D en Tafalla, Caparros, Lodosa, Olite, Peralta, Barasoáin, Allo, Ansoáin y Sesma. Las han abierto las familias. Ahí estamos trabajando con ellas.]*

Eta aitortu behar dugu zenbait kasuetan ere, eta lehen aipatu dugun bezala, aurreiritzi asko egon dira eta badaude oraindik ere euskararen kontra. Euskararen kontrako aurreiritziak inongo oinarririk ez dutenak, askotan beldurrak besterik ez sortutako aurreiritziak daude. Familia horiek ere benetan euren seme-alabentzat hoberena D eredia dela ere pentsatzen dute, gaur egun Nafarroako hezkuntza sisteman eredurik osatuena delako. Horregatik hori euren seme-alabentzat nahi dute eta beraiekin ere elkarlanean ari gara gaur egun.

*[Y tenemos que confesar que, en muchos casos, y como hemos comentado antes, ha habido muchos prejuicios y que todavía los hay en contra del euskera. Son prejuicios en*

*contra del euskera sin ninguna base, muchas veces son prejuicios creados simplemente por el miedo. Esas familias realmente piensan que lo mejor para sus hijos e hijas es el modelo D, ya que actualmente es el modelo más completo dentro del sistema educativo de Navarra. Por eso quieren eso para sus hijos e hijas y actualmente trabajamos conjuntamente con ellos.]*

Hori zen gaurko agerraldiaren helburua, zuei ere erakustea gure Elkartean egunerokotasunean bizi dugun errealitate hori. Gaur egun aurkitzen dugu Nafarroan, segun eta non jaiotzen zaren ere, hezkuntza eskubide desberdinak dituzula eta horiekin ari gara lanean gaur egun. Eta egoera hori edo errealitate hori da gure Elkartetik, Sortzen Elkartetik, ere ulertzen ez duguna. Nola da posible ere Caparrosoko familia batek –egunean bertan ere deitu ahal digute Caparrosotik, Leitzatik edo Iruñerriako auzo batetik– edo eskola batek hizkuntza eskubide desberdinak dituzten familiak edo irakasleak izatea, baina lurralde berdinean bizi izatea.

*[Ese era el objetivo de la comparecencia de hoy, mostrarles a ustedes esa realidad que vivimos cotidianamente en nuestra Asociación. Hoy en día encontramos en Navarra que, dependiendo de dónde naces tienes diferentes derechos y en la actualidad trabajamos con eso. Y esa situación o esa realidad es la que, desde nuestra Asociación, desde Sortzen, no entendemos. Cómo es posible que una familia de Caparroso –actualmente nos pueden llamar desde Caparroso, Leiza o un barrio de Pamplona– o una escuela tenga familias o profesores con derechos lingüísticos diferentes, pero que vivan en el mismo territorio.]*

Orduan, gaurko agerraldian ere esan nahi genuen egoera horrekin lehenbailehen bukatu behar dela. Bukatu behar da eta bukatzeko bidea oso erraza daukagu ere. Lehen aipatu dudan moduan, hemen Iruñerrian orain dela 40 urte Iruñeko udal ikastolekin hasi ziren, ikastola publikoekin. Eta hor bidea ez zen erraza izan. Familia gutxi batzuk hasi ziren. Baina gaur egun, milaka familia pasa dira bere garaian Ave María deitzen zen eta gaur egun Patxi Larrainzar deitzen den Arrotxapeako ikastetxe publikotik, edo hemen ondoan San Franciscon edo Atarrabian edo dozena ikastetxetan. Adibideak baditugu. Familia gutxi batzuk hasi ziren, Caparrosen sei hasi ziren bezala eta gaur egon hamazortzi daude. Hiru urtetan sei familia izatetik hamazortzi familia izatera pasa dira eredu publikoan euskarazko irakaskuntzan ari direnak. Orduan, hasierak ez dira errazak baina hor bidea eman behar zaio euskarari. Eta euskarazko irakaskuntzan horrela gauzatu da D ereduaren garapenean azken 40 urte hauetan.

*[Entonces, en la comparecencia de hoy queríamos decir que hay que terminar lo antes posible con esa situación. Hay que terminar y la forma para terminar es muy sencilla. Como he comentado antes, aquí en la Cuenca de Pamplona se empezó hace 40 años con ikastolas municipales de Pamplona. Y ahí el camino no fue sencillo. Empezaron unas pocas familias. Pero en la actualidad miles de familias han pasado por la escuela pública de la Rochapea que en su día se llamaba Ave María y que ahora se llama Patxi Larrainzar, o por aquí cerca en San Francisco o en Villava o en docenas de escuelas. Tenemos ejemplos. Empezaron pocas familias, al igual que en Caparroso comenzaron seis familias y en la actualidad hay dieciocho. En tres años han pasado de ser seis familias a dieciocho las que estudian en euskera en el modelo público. Entonces, los*

*comienzos no han sido sencillos, pero ahí hay que darle camino al euskera. Y en la enseñanza del euskera así ha sido en el desarrollo del modelo D en los últimos 40 años.]*

Bide honetan ere, esan dugun moduan, gure Elkarteak prest dago, nahiz eta legea lagun ez izan, izan ere orain arte horrela izan da eta hemendik aurrera, Batzorde honen helburua betetzen bada eta behingoz euskararen ofizialtasuna lortzen badugu, legea lagun izango dugu. Baina hor bidea egiteko prest gaude. Eta bide horretan azken bost urteetan ere Sortzen Elkartetik lan bat izan dugu ikasle euskaldun eleaniztun horiek sortzeko. Azken bost urte hauetan ikastetxe pilotu batzuetan ibili gara lanean eta gida praktikoa bat ateratu dugu ikusi genuelako posiblea dela eta posiblea dela sistematizatzea eta gida praktikoa bat egitea. Hor tresnak badaude. Hor orain behar duguna legearen babesa da. Herria eta gure eskolak, hezkuntza sistema, prest dago ofizialtasunerako Nafarroa osoan. Hori prest dago.

*[En este camino también, como hemos dicho, nuestra Asociación está preparada, aunque la ley no ayude, ya que hasta ahora así ha sido y a partir de ahora, si se cumple el objetivo de esta Comisión y por fin logramos la oficialidad del euskera, tendremos la ley a nuestro favor. Pero ahí estamos preparados para realizar el camino. Y en ese camino en los últimos cinco años desde la Asociación Sortzen hemos tenido un trabajo para crear esos trabajos de estudiantes multilingües. En estos últimos cinco años hemos estado trabajando en algunas escuelas piloto y hemos sacado una guía práctica porque vimos que era posible y que era posible sistematizarlo y hacer una guía práctica. Ahí hay algunas herramientas. Ahí, lo que ahora necesitamos es la protección de la ley. El pueblo y nuestras escuelas, el sistema educativo, están preparados para la oficialidad en toda Navarra. Eso está preparado.]*

Eta askok esango dute egoera soziolinguistikoak ez duela laguntzen, baina guk esaten dugu egoera soziolinguistikoak, 40 urteko diktadura baten ostean eta Vasconcearen Legearen 30 urteren ostean, zein egoera soziolinguistikoa nahi dugu? Daukagu daukaguna hor baldintza batzuk egon direlako, bazterketa bat egon delako. Baina lehen esan dudana bezala, euskarari bidea ematen bazaio, euskarazko irakaskuntzari bidea ematen bazaio, lehen esan duguna etorriko da. Caparrosen orain dela hiru urte sei familiarekin hasi ziren baina gaur egun hamazortzi daude. Eta hori da. Hor familiei bidea eman eta babesa eman legearekin.

*[Y muchos dirán que la situación sociolingüística no ayuda, pero nosotros decimos que, ¿qué situación sociolingüística queremos tras una dictadura de 40 años y tras 30 años de la Ley del Vasconce? Tenemos lo que tenemos porque ahí ha habido algunas condiciones, porque se ha dado una exclusión. Pero como he dicho antes, si se le abre el camino al euskera, si se le abre el camino a la enseñanza en euskera, llegará lo que hemos dicho antes. En Caparrosa hace tres años empezaron seis familias y actualmente hay dieciocho. Y es eso. Abrirle el camino a las familias y darles apoyo con la ley.]*

Ondorioz, eta bukatzeko, esan duguna errepikatuko dut. Herria osoan hizkuntza eskubide berdinak nahi ditugu eta behingoz legearen babesarekin aritu nahi dugu gure eskoletan. Eta pertsonekin ari gara lanean. Hor utzi dizuet pasa den ikasturtean ateratako horrelako egunkari bat, hango herrietako orain arte euskarazko irakaskuntza debekatua egon den eta oraindik euskara ofiziala ez den lurralde horien familien testigantzak jasotzen dituenak. Pertsonak dira. Hemen, alderdi politikoek hitz egiten dutenean Sesma inguruan edo Alloren inguruan,

horiek familiak dira, eskubideekin, eta euren seme-alabentzat hezkuntza sistema hoberena nahi dutenak. Eta gaur egun, eta hau errepikatuko dut, ondorio bezala eta bukatzeko, D eredua, euskarazko murgiltze eredua, da Nafarroako hezkuntza sisteman dagoen eredurik osatuena, hoberena. Eta hoberena da, bereziki eta bukatzeko, elkarbizitzarako pertsonak sortzen dituelako.

*[Por lo tanto y para finaliza, repetiré lo que hemos dicho. Queremos los mismos derechos en todo el territorio y queremos actuar por fin con la protección de la ley en nuestras escuelas. Y estamos trabajando con personas. Ahí les he dejado una especie de periódico publicado el curso pasado, que recoge los testimonios de familias de territorios en los que la enseñanza del euskera todavía está prohibida y donde el euskera no es oficial. Son personas. Aquí, cuando los partidos políticos hablan de Sesma o Allo, esas son familias, con derechos, y que quieren el mejor sistema educativo para sus hijos e hijas. Y actualmente, y estoy lo voy a repetir como consecuencia y, para terminar, el modelo D, el modelo de inmersión en euskera, es el modelo más completo dentro de sistema educativo de Navarra, el mejor. Y es el mejor, especialmente y ya para terminar, porque crea personas para la convivencia.]*

Eta adibide batekin bukatuko dut. D ereduko eskoletan gure sema-alabak ateratzen dira eta erabakitzen dute zein hizkuntzatan hitz egin nahi duten, euskaraz edo gazteleraz. Euskaraz hitz egiten dute horrela nahi badute ere beraien gelakideekin, baina plazan elkartzen dira A eta G ereduan ikasten duten gazteekin. Eta gazte horiek ez dute eta ezin dute erabaki euskaraz hitz egitea gure seme-alabekin. Orduan, elkarbizitzaren inguruan ari gara hor gure seme-alabekin.

*[Y voy a terminar con un ejemplo. En las escuelas de modelo D nuestros hijos e hijas salen y deciden en qué idioma quieren hablar, si en euskera o en castellano. Hablan en euskera si quieren con sus compañeros de clase, pero en la plaza se juntan con jóvenes que estudian en los modelos A y G. Y esos jóvenes no deciden y no pueden decidir si hablar en euskera con nuestros hijos e hijas. Entonces, se trata ahí de la convivencia con nuestro hijos e hijas.]*

Eta bukatzeko, lehen esan dudan moduan, iparra galdu gabe, euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen dugu herrialde osorako, zonifikazioarekin bukatzea, gehienbat pertsonen eskubideaz ari garelako. Mila esker.

*[Y, para terminar, como he dicho antes, sin perder el norte, reivindicamos la oficialidad del euskera para todo el territorio, terminar con la zonificación, ya que sobre todo hablamos de los derechos de las personas. Muchas gracias.]*

SR. REPRESENTANTE DE NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA (Sr. Reparaz Leiza): Egun on eta baita ere berretsi nahi dut esker mezua hemen egoteko gonbidapenagatik. Nafarroako Ikastolen Elkartea bigarren mailako kooperatiba bat da eta bertako bazkide dira Nafarroako geografian barnean dauden hamabost ikastola. Euskara Nafarroako berezko hizkuntza dela jasotzen du euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak. Nafarroaren ondare izendatzen du euskara eta altxor hori begiratu eta babesteko, eta haren hondatzea eta galera eragozteko beharkizuna ezartzen du. Gainera, hizkuntzen arteko borroka edo aurkaritza baztertzeo aldarrikapen solemnea egiten du eta aitortzen die herritar guztiei euskara jakin eta erabiltzeko

eskubidea. Lege hori onartu aurretik, Nafarroako biztanle askok egina zeukaten beraien hizkuntza hautua eta beraien seme-alabentzat nahi zuten hizkuntza ereduarena ere.

*[Buenos día y también quiero ratificar el mensaje de agradecimiento por la invitación para estar aquí. La Asociación de las Ikastolas de Navarra es una cooperativa de segundo nivel y son miembros de la misma quince ikastolas en toda la geografía navarra. La Ley Foral 18/1986 sobre el euskera recoge que el euskera es una lengua propia de Navarra. La denomina patrimonio de Navarra y establece la necesidad de observar y proteger ese tesoro y de impedir su destrucción y pérdida. Además, hace una reivindicación solemne para dejar de lado la pelea o confrontación entre lenguas y les otorga a todos los ciudadanos el derecho a saber y utilizar el euskera. Antes de aprobar esa ley, muchos ciudadanos de Navarra ya tenían hecha su elección de lengua y también la del modelo lingüístico que querían para sus hijos e hijas.]*

Herritik sortutako eskaera behar eta desioei bide eman zioten ikastolek, administrazioak eskaintzen ez zuen hutsunea betez. Horregatik definitzen ditugu ikastolak herriarengandik sortu eta herriarentzat lanean diharduten erakunde bezala. Lege honek ezartzen dituen hiru hizkuntza eremuetan sortuta zeuden ikastolak 1965a geroztik honako hauek ziren: bost eremu euskaldunean –Etxarri, Altsasu, Baztan, Elizondo, Lesaca eta Bera–, lau eremu mixtoan –horiek dira gure zerrendan dauden handienak: Iruñeako Jaso, Iruñerriako Paz de Ziganda eta San Fermín eta Lizarra ikastola– eta sei eremu ez euskaldunean. Sei hauek gure zerrendako txikienak dira eta egoera administratibo eta ekonomiko zailenak pairatu dituztenak urte guzti hauetan zehar. Ikastola hauek lehenengo ilegalak izan ziren, ondoren alegalak eta 2002. urtean legeztatuak. Eta ikastola hauek baita ere bizi izan dira gainerako ikastoletako bazkideen ekarpen ekonomiko eta elkartasunari esker.

*[Las ikastolas dieron paso a la petición, necesidades y deseos creados desde el pueblo, llenando el vacío que no ofrecía la administración. Por eso definimos las ikastolas como instituciones que fueron creadas desde y para el pueblo. Las ikastolas que estaban creadas tras 1965 en las tres zonas lingüísticas que establece esta ley eran las siguientes: cinco en la zona vascofona –Echarri, Alsasua, Baztán, Elizondo, Lesaca y Vera–, cuatro en la zona mixta –esas son las más grandes de nuestra lista: Jaso de Pamplona, Paz de Ziganda de la Cuenca de Pamplona y San Fermín y la ikastola Lizarra– y seis en la zona no vascofona. Estas seis son las más pequeñas en nuestra lista y las que han sufrido las situaciones administrativas y económicas más difíciles en todos estos años. Estas ikastolas al principio eran ilegales, luego alegales y en 2002 se legalizaron. Y estas ikastolas han vivido gracias a las aportaciones económicas y a la solidaridad de los socios del resto de ikastolas.]*

1970ean sortu zen Tafallako Garcés de los Fayos ikastola, 1977an Sangontzako Rincón del Carmen, 1978an Vianako Erentzun, 1980an Arangoitiko Irunberri, 1984an Tuterako Argia eta 1986an, legea onartu zen urte berean, Sartagudako Deikaztelu. Ikastola hauetan bertan ikasi zuten ikasleak euskalduntzea izan da beti helburua ikastoletan, euskara beraien hizkuntza bilakatuz, noski, beste zenbait ama hizkuntzekin batera, gaztelania, ingelesa edo etxetik zekartena. Honek euskara bizitzako eremu desberdinetan erabiltzeko gai izatea suposatzen du, esparru akademikotik at, noski. Ia 14.000 ikaslek bukatu dituzte ikasketak aipatu ditudan sei



ikastola hauetan, eremu ez euskalduneko sei ikastola hauetan. Eta gaur egun 16.285 ikaslek jasotzen dute bertan heziketa.

*[En 1970 se creó la ikastola Garcés de los Fayos de Tafalla, en 1977 Rincón del Carmen de Sangüesa, en 1978 Erentzun de Viana, en 1980 Irunberri de Arangoiti, en 1984 Argia de Tudela y en 1986, el mismo año que se aprobó la ley, Deikaztelu de Sartaguda. El objetivo en las ikastolas siempre ha sido la euskaldunización de los estudiantes que estudian allí, convirtiendo el euskera en su lengua, por supuesto, junto con otras lenguas maternas, en castellano, el inglés o el que trajeran de casa. Esto supone que sean capaces de utilizar el euskera en los diversos ámbitos de la vida, fuera del ámbito académico, claro. Casi 14.000 estudiantes han terminado sus estudios en las seis ikastolas que he nombrado, las seis de la zona no vascofona. Y en la actualidad 16.285 estudiantes reciben la educación en los mismos.]*

Aipatutako lege honekin, errealitatea hasieran egin dudan sarrera horretan asmo on horietatik oso urrun geratu da. Eremu ez euskalduneko eta, askotan, gehienetan, eremu mixtoko euskaldunek pairatu behar izan dute haien hizkuntza eskubideen urraketa sistematikoa. Ikastola hauetan hezi diren ikasleak eta haien familiek ezin izan dute euskara erabili bizitzako eremu gehienetan beraien herrietan. Euskararen legeak bermatu baino, mugatu egin dizkie eskubideak herritarrei, euskaraz bizitzeko eskubidea tokiaren arabera baizik ez baitie aitortzen. 18/1986 Foru Legeak aitortzen die herritarrei administrazioekiko harremanetan Nafarroako berezko hizkuntza den euskara erabiltzeko eskubidea. Edonola, eskualdekatze bidegabe honen ondorioz, soilik eremu euskaldunetan dute herritarrek euskaraz artatuak izateko eskubidea aitortuta. Horregatik, uste dugu euskararen lege hau desagokia dela, ez duelako balio herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, lurralde bereko toki batean aitortu eta bestean ukatu egiten baitzaizkio herritarrei arbitrarioki.

*[Con esta ley que hemos comentado, la realidad se ha quedado muy lejos de esa intención que he comentado en la introducción. Los vascoparlantes de la zona no vascofona y muchas veces, la mayoría, de los de la zona mixta han tenido que sufrir la violación sistemática de sus derechos lingüísticos. Los estudiantes que han sido educados en estas ikastolas y sus familias no han podido utilizar el euskera en la mayoría de los ámbitos de su vida en sus pueblos. La ley del euskera más que garantizarlos, les ha limitado los derechos a los ciudadanos, ya que solo reconoce el derecho a vivir en euskera según el lugar. La Ley Foral 18/1986 reconoce a los ciudadanos el derecho a utilizar el euskera, lengua propia de Navarra, en las relaciones con la administración. De cualquier forma, como consecuencia de esta división por territorios injusta, solamente en la zona vascofona tiene derechos los ciudadanos a ser atendidos en euskera. Por eso, creemos que esta ley del euskera es inadecuada, ya que no sirve para garantizar los derechos lingüísticos de los ciudadanos, puesto que se los reconoce a los ciudadanos en algunos lugares y se los niega en otros de manera arbitraria.]*

Hizkuntza eskubideak eskubide indibidualak eta, neurri batean, kolektiboak dira. Baina Foru Lege honek gizarte kohesioaren aurka egiten duela uste dugu, ukatzen baitie herritarrei berezkoa den hizkuntzaren jabe izan arren, hau da, euskara ikasi arren, euskaraz bizitzeko aukera bete izatea. Eskubideen araberrako banaketak eragiten ditu herritarren artean eta lege

honek hesi juridiko, politiko, sinboliko, psikologiko eta administratiboa ezartzen du. Gutxiagotasun konplexua zabaltzen du euskaldunen artean eta gotortu egiten ditu euskararen garapenean aurkako jarrerak, aurkara arrotz mantenduz eta euskararen aldeko politikiei buruzko herritarren pertzepzioa okertuz.

*[Los derechos lingüísticos son derechos individuales y, en cierta medida, son colectivos. Pero creemos que esta Ley Foral va en contra de la cohesión social, ya que les niega a los ciudadanos tener la oportunidad de vivir en euskera, pese a que conozcan la lengua propia, pese a aprender euskera. Crea divisiones entre los ciudadanos según los derechos y esta ley establece una barrera jurídica, política, simbólica, psicológica y administrativa. Difunde un complejo de inferioridad entre los vasco parlantes y fortalece las actitudes contrarias al desarrollo del euskera, manteniendo una actitud ajena y descarriando la percepción de los ciudadanos sobre las políticas a favor del euskera.]*

Gainera, ez da lege eraginkorra, bere murriztasunak ditu, ez baitu euskararen erabileraren normalizazioa, ezta euskararen garapena ere ahalbideratzen. Eskualdekatzeak eta euskarak ofizialtasunik ez izateak euskararen garapen azkarragoaren aurka egiten duela uste dugu. Azken ikerketen arabera, euskaraz eskolaratzeko aukera eskura izan duten tokietan euskalduntze prozesuaren hazkundera handiagoa izan da. Horren lekukoa naiz Lizarrako ikastolan 28 urte pasa ondoren. Iritsi nintzenetik alde egin nuen arte, orain dela hiru urte, nabarmen egin zuen gora euskararen erabilerak Lizarra aldean, beste eragile batzuk ere tartean egon direla azkenengo urteetan.

*[Además, no es una ley eficaz, tiene sus limitaciones, ya que no posibilita la normalización del uso del euskera ni el desarrollo del euskera. Creemos que la división por territorios y que el euskera no tenga la oficialidad va en contra del desarrollo más rápido del euskera. Según las últimas investigaciones, en los lugares en los que han tenido disponible la oportunidad de escolarizarse en euskera el crecimiento del proceso de euskaldunización ha sido mayor. Soy testigo de ello tras pasar 28 años en la ikastola de Lizarra. Desde que llegué hasta que me fui, hace tres años, el uso del euskera en Lizarra aumentó visiblemente, con otros factores entre medias también en los últimos años.]*

Euskara hizkuntza gutxitua da Nafarroan hizkuntz gatazka egoeran egonik, baldintza soziolinguistiko, juridiko eta politiko makurragoak dituelako alboko hizkuntza hegemonikoaren aldean. Edonola ere, aipatutako lege hau, indarrean dagoen legea, onartu zenetik gaur egun arte hobetu egin dira baita ere gure hizkuntzaren baldintza sozialak. Eta hobekuntza nahi eta behar baino motelagoa gertatzen ari dela ere esan behar dugu. Zailtasunak zailtasun, herritarren nahiak eta lanak ekarri dituzte kasu honetan ikastolak gaurko egoeraraino. Horri guztiari esker, euskaraz bizitzeko ilusioa eta helburu hori lortzeko gogoia bizi-bizi daude oraindik ere gizartearen, eta hori ikusten dugu ere gure ikastoletako familien artean.

*[El euskera es una lengua minorizada en Navarra porque, estando en la situación de lucha en la que está la lengua, tiene peores condiciones sociolingüísticas, jurídicas y políticas frente a la lengua hegemónica que tiene al lado. De cualquier modo, esta ley mencionada, la ley vigente, desde que se aprobó hasta ahora han mejorado también las condiciones sociales de nuestra lengua. Y también tenemos que decir que se está dando*

*una mejor más lenta de lo que se quiere y se necesita. Pese a las dificultades, el deseo y el trabajo de los ciudadanos han llevado a las ikastolas a la situación actual. Gracias a todos eso en la sociedad también está muy viva la ilusión de vivir en euskera y las ganas de lograr ese objetivo, y eso también lo vemos entre las familias de nuestras ikastolas.]*

Euskarari buruzko lege berri bat aurrera ateratzeko proposamena prestatzeko lanean dagoen Batzorde Berezi honek lege berriaren printzipio inspiratzaileekin bat egiten dugu Nafarroako Ikastolen Elkartek. Hau da, Nafarroako herritarren hizkuntza eskubideak betetzea, zonifikazio linguistikoa gainditzea eta euskara Nafarroa osoan ofizial bihurtzea, lurraldeko errealitate soziolinguistiko desberdinak abiatuz eta haiei egokitzuz. Beraz, esaten dut ikastolok horrekin bat egiten dugula. Ikastolok beti amestu dugu euskararen erabilera normalizatua gizarte bizitzan eta euskararen garapena eta etorkizuna ahalbidetzeko jardun eta hizkuntz aniztasun eta pertsonen eskubideen defentsan lan egin dugu. Gizartearen ongizatean, elkarbizitzan eta bakean sakontzeko ekarpena izan behar du Foru Lege berriak. Kontuan izan behar da bakea pertsonen eta giza taldeen bizi baldintza duinak ezartzearen ondorio bat dela. Hartara, hizkuntza komunitateen duintasunaren errespetuak ere ahalbidetuko du gure ustez bake sozial hori.

*[Desde la Asociación de Ikastolas de Navarra estamos de acuerdo con los principios inspiradores de la nueva ley con los que trabaja esta Comisión Especial para preparar una propuesta para sacar adelante una nueva ley del euskera. Es decir, cumplir los derechos lingüísticos de los ciudadanos de Navarra, superar la zonificación lingüística y convertir el euskera oficia en toda Navarra, dirigiéndolo a las diferentes realidades sociolingüísticas y adecuándolas a ellas. Por lo tanto, digo que las ikastolas estamos de acuerdo con eso. Las ikastolas siempre hemos soñado con el uso normalizado del euskera en la vida social y hemos trabajado para posibilitar el desarrollo y el futuro del euskera y en la defensa de los derechos de las personas y la diversidad de lenguas. La nueva Ley Foral tiene que tener la aportación de profundizar en el bienestar de la sociedad, la convivencia y la paz. Hay que tener en cuenta que la paz es una consecuencia del hecho de establecer condiciones de vida dignas a las personas y a los grupos sociales. Así, en nuestra opinión, esa paz social posibilitará el respeto a la dignidad de las comunidades lingüísticas.]*

Nafarroako Ikastolen Elkartearen iritziz, euskararen lege berri batek zenbait alderditan aurrerapauso handia suposatuko luke euskararen erabilerearen normalizazioan. Berezkotasuna, hau da, euskara Nafarroako berezko hizkuntza honen begiratzea, babestea eta hedapena ekar litzake eta haren galera eragozteko beharkizuna. Beste bat, hizkuntza eskubide berdintasuna eta bermea da. Ofizialtasunak, gure ustez, hizkuntzari lege balioa emango lioke, gizarte antolatuaren hizkuntza ohiturak, hizkuntza jardunak eta hizkuntza jokaerak arautu eta bermatzen lagunduz, hau da, finean euskaraz bizitzeko eskubide efektiboa gauzatzeko modua. Unibertsaltasuna eta gizarte kohesioa beste bat da. Hizkuntza eskubideak eskubide indibidualak eta neurri batean kolektiboak direla esan dut hasieran. Dimentsio komunikatiboaz gain, dimentsio kulturala ere badute. Hizkuntza bakoitza da kolektiboki eraikitako errealitate bat eta komunitate baten magalean bilakatzen da erabilgarri normalekoentzat, kohesioaren, identifikazioaren, komunikazioaren eta adierazkortasun sortzailearen tresna gisa. Horregatik, nafar guztiei euskara ezagutzeko eta bizitza euskaraz garatzeko eskubidea aitortuko lioke.

*[En opinión de la Asociación de Ikastolas de Navarra una nueva ley del euskera supondría un gran paso adelante en la normalización del uso del euskera. Podría traer la particularidad, es decir, ver el euskera como una lengua propia de Navarra, protección y difusión y también la necesidad de impedir su pérdida. Por otro lado, la igualdad y garantía de los derechos lingüísticos. En nuestra opinión, la oficialidad le daría un valor legal a la lengua, ayudando a reglar y garantiza las costumbres lingüísticas de la sociedad organizada, las actividades lingüísticas y los comportamientos lingüísticos, es decir, al final el modo de llevar a cabo de manera efectiva el derecho de vivir en euskera. Otro aspecto es la universalidad y la cohesión social. Al principio he dicho que los derechos lingüísticos son derechos individuales y en cierta medida colectivos. Además de la dimensión comunicativa, también tienen una dimensión cultural. Cada lengua es una realidad construida de forma colectiva y en el regazo de una comunidad se vuelve útil para lo normal, como herramienta de cohesión, identificación, comunicación y creación de expresividad. Por eso, le reconocería el derecho a conocer el euskera y a desarrollar la vida en euskera a todos los navarros.]*

Hizkuntzaren normalizazioa beste alderdi bat izango litzateke. Euskararen lege berri batek bokazio hau izan beharko luke: herritar euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzea, euskararen normalizazioan eragitea eta hau lortzea. Horregatik, euskararen berreskuratzea eta hedabideak sustatzeko hizkuntza plangintzak sustatu beharko lirateke, minorizazio egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik atera eta gizarte esparru eta funtzio guztietara hedatzeko.

*[La normalización de la lengua sería otro ámbito. Una nueva ley del euskera debería tener esta vocación: respetar los derechos lingüísticos de los ciudadanos vascoparlantes, llevar a la normalización del euskera y lograrla. Por eso, se deberían impulsar planes lingüísticos para recuperar el euskera e impulsar los medios de comunicación, para sacar de esa situación la lengua que está en una situación minoritaria y para expandirla a todos los ámbitos y funciones de la sociedad.]*

Eta ulertzen dugu hau guztia lurraldean dauden egoera soziolinguistiko desberdinei irtenbide egokiena emateko moduko modulazio batetan izan behar duela eta hizkuntza plangintzek ere horren baitan egon behar dutela. Baina uste dugu hori beti eman behar dela, malgutasun horrek nolabait izan behar duela herritarren hizkuntz eskubideen bermea muga. Gure ustez, hori da izan beharko lukeen muga.

*[Y entendemos que todo esto debe ser mediante una modulación capaz de dar la mejor solución a las diferentes situaciones sociolingüísticas que se dan en el territorio y que dentro de la misma tiene que haber planes lingüísticos. Pero creemos que eso se tiene que dar siempre, que esa flexibilidad tiene que tener como límite la garantía de los derechos lingüísticos de los ciudadanos. En nuestra opinión, ese es el límite que debería tener.]*

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko. Lehendabiziko azalpena bukatuta, orain parlamentu taldeen txanda da. Ordezkarik pare batzuek adierazi digutenez beste bilera batera atera behar dutela, ohiko ordena aldatuko dugu eta hitza beste ordena batean emango dugu. Hasteko, lehendabiziko hitza emango diogu Podemos-Ahal Dugu Taldearen ordezkaria den Pérez Ruano andereari. Hamar minutuko txanda daukazu. Zurea da hitza.

*[Muchas gracias. Terminada la primera explicación, ahora es el turno de los grupos parlamentarios. Como algunos portavoces nos han indicado que tienen que salir a otra reunión, cambiaremos el orden normal y daremos la palabra en otro orden. Para empezar, el primer turno de palabra lo tiene la señora Pérez Ruano, portavoz de Podemos-Ahal Dugu.]*

SRA. PÉREZ RUANO: Mila esker, mahaiburu jauna. Mila esker zuei ere egiten duzuen lanagatik, hemen emandako adierazpen guztiengatik eta, batez ere, euskaraz bizi ahal izateko bidea irekitzeagatik. Eta mila esker ere hainbeste lan urte luzez herri txikitari eta herri guztietan, Nafarroako eremu desberdinetan lan egin duten familiei, izan ere, azken finean euskaraz ikasteko eskubidea lortu izana haiei esker izan delako ere.

*[Muchas gracias, señor Presidente. Muchas gracias también a ustedes por el trabajo que realizan, por todas las explicaciones aquí ofrecidas y, sobre todo, por abrir el camino a poder vivir en euskera. Y muchas gracias también a las familias que durante largos años tanto han trabajado en pueblos pequeños y en todos los pueblos, en las diferentes zonas de Navarra, y que, al final, el hecho de haber logrado el derecho a estudiar en euskera se lo debemos a ellas.]*

Guk beti esan dugu Batzorde Berezi honetan egungo errealitate linguistikoa aldatu beharra dagoela eta horretarako euskararen legea aldatu beharko genukeela, ofizialtasuna Nafarroa osoan eskainiz. Eta, nola ez, guk arbitrariedade juridikotzat ematen dugun zonifikazio hori ere gaindituz. Horretarako ere, behar dugulako ere Nafarroa osoan hizkuntz eskubideak nafartar guztiontzat berdintasunez eskaintzeko eta, nola ez, euskarafobiarik gabe irakaskuntzan ez bakarrik baita administrazioan, kalean, kulturari eta eremu eta esparru guztietan ere, diskriminaziorik gabe. Horretarako ausardia beharko genuke hemen gauden alderdi guztion edo ordezkari guztion aldetik eta, nola ez, baliabideak eskaini, baliabide ekonomikoak, ez duelako ezertarako balio legean, paperan, zerbait esatea gero baliabideak ere eskaintzen ez diren heinean.

*[Nosotros siempre hemos dicho que en esta Comisión Especial se tiene que cambiar la realidad lingüística actual y que para eso tendríamos que cambiar la ley del euskera, ofreciendo la oficialidad en toda Navarra. Y, como no, superando esa zonificación que nosotros también tomamos como una arbitrariedad jurídica. Para eso también, porque necesitamos que se ofrezcan con igualdad los derechos lingüísticos en toda Navarra para todos los navarros y, como no, sin euskerafobia, no solo en la enseñanza sino también en la administración, en la calle, la cultura y en todas las zonas y ámbitos, sin discriminación. Para eso necesitaríamos valentía por parte de todos los partidos y portavoces aquí presentes y, por supuesto, habría que ofrecer recursos, recursos económicos, ya que de nada sirve que se diga algo en la ley, sobre el papel, si luego no se ofrecen los recursos.]*

Besterik gabe, guk hau defendatzen jarraituko dugu eta konplexu politikorik gabe gainera, nafartarrak batzeko balio baitu euskarak eta ez banatzeko. Diskurtso horiek ez ditugu ontzat hartuko. Mila esker.

*[Nada más. Nosotros seguiremos defendiendo esto y, además, sin ningún complejo político, ya que el euskera sirve para unir a los navarros y no para separarlos. Esos discursos no los daremos por buenos. Muchas gracias.]*

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko, Pérez anderea. Eta orain, ohi den bezala, nahi izanez gero agerraldia egiten duenari ematen zaio aukera bost minutuz zerbait esateko edo, bestela, txandarekin segituko dugu. Zuen esku dago.

*[Muchas gracias, señora Pérez. Y ahora, como es habitual, si así lo desea, a la persona que ha comparecido se le ofrece un turno de palabra de cinco minutos para decir algo o, si no, continuamos con el turno. Ustedes deciden.]*

SR. REPRESENTANTE DE NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA (Sr. Reparaz Leiza): Nire aldetik, eskertu nahi dut eta bat egiten dugu kasu honetan Nafarroako Ikastolen Elkartearen ordezkari bezala zure proposamenekin. Uste dugu hizkuntzak ez dira bereizteko tresna bat, baizik eta batzeko. Beraz, alde horretatik bat egiten dugu zure proposamenarekin.

*[Por mi parte, quiero darle las gracias y decirle que como portavoz de la Asociación de Ikastolas de Navarra en este caso estamos de acuerdo con sus propuestas. Creemos que las lenguas no son una herramienta para la diferenciación, sino para la unión. Por lo tanto, por esa parte estamos de acuerdo con su propuesta.]*

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko. Beraz, txandarekin jarraituko dugu. Kasu honetan, hitza emango diogu Izquierda-Ezkerra Taldeko ordezkariari, Nuin jaunari.

SR. NUIN MORENO: Muchas gracias, señor Presidente. Quiero agradecer a la Federación de Ikastolas de Sortzen su presencia hoy aquí y lo que nos han trasladado en cuanto a valoraciones de la situación del euskera hoy en Navarra y las propuestas de cambios que nos trasladan.

Bueno, nosotros creemos que en los últimos años ha habido cambios en la política lingüística y en el marco normativo, cambios positivos –desde luego. en esta legislatura la política lingüística que desarrolla el Gobierno de Navarra no es la que desarrollaba Unión del Pueblo Navarro–, y en una dirección positiva para el euskera para su mayor conocimiento y uso, y también para un mayor y más efectivo ejercicio de los derechos lingüísticos de la ciudadanía. Por lo tanto, en ese sentido, valoramos de forma positiva el trabajo que se está haciendo en estos momentos por el Gobierno. También valoramos en su momento, en febrero de 2015, como positiva, aunque fuera la pasada legislatura, la Ley Foral 4/2015, a la que se ha hecho alusión, que significó un cambio importante, por lo que aportó esa ley, aprobada en el Parlamento, con el Gobierno de UPN todavía, pero bueno, con una mayoría parlamentaria. Entonces lo que significó fue que se superaba la situación en la que había una parte de Navarra donde en la educación pública las familias no podían elegir que sus hijos e hijas recibieran –o tuvieran como lengua vehicular– la enseñanza en euskera, es decir, el modelo D, y eso se superó.

Se ha hecho alusión a las diferentes aulas, a los diferentes pueblos, donde se ha puesto en marcha a partir de entonces –respondiendo a una demanda social, a una demanda de las familias– el modelo D, la enseñanza en euskera, y nos parece que eso es muy importante

porque ahora no se puede afirmar que exista algún pueblo de Navarra donde las familias no puedan elegir que sus hijos e hijas reciban la enseñanza en euskera. Esto ya es desde 2015 un derecho en toda Navarra y nos parece importante.

¿A partir de ahí? ¿Cuál es la posición de Izquierda-Ezkerra? Pues, desde luego, nosotros estamos dispuestos a seguir avanzando en políticas lingüísticas comprometidas y que apoyen el euskera en Navarra como lengua propia y su avance desde los principios que figuran en el acuerdo programático que hemos firmado cuatro fuerzas políticas en esta legislatura. Desde estos principios que figuran ahí, que son: libertad, voluntariedad, progresividad y adecuación a la realidad sociolingüística de las diferentes zonas de Navarra que existen, muy diferentes. Esto figura como principios de política lingüística junto a otros en el acuerdo programático. Pues, con base en eso, estamos dispuestos a seguir trabajando y a seguir llegando a acuerdos. Este es el marco en el cual nosotros trabajaremos en esta Comisión y valoraremos las propuestas que se presenten.

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko, Nuin jauna. Esan bezala, nahi izanez gero zerbait esateko bost minutuko tartea duzue.

SR. REPRESENTANTE DE SORTZEN ELKARTEA (Sr. Iribarren Galbete): Aipatu dudanez, egoera soziolingüistikoa askotan aipatzen duzue. Batzorde honek badauka ibilbide bat, pasa den ikasturtetik daramazue. Jarraitu izan dugu eta askotan aipatzen da Nafarroan dagoen egoera soziolingüistikoa. Aipatu dugu egoera soziolingüistiko zehatz bat daukagula Vasuenceren Legeak orain del 30 urtez zonifikazio bat izan duelako eta debekatua egon delako D eredua zonalde zehatz batean.

*[Como he dicho, muchas veces hablan de la situación sociolingüística. Esta Comisión ya tiene una trayectoria, llevan desde el pasado curso. La hemos seguido y muchas veces se comenta la situación sociolingüística que hay en Navarra. Hemos dicho que tenemos una situación sociolingüística concreta porque la Ley del vascuence ha tenido una zonificación durante 30 años y porque el modelo D ha estado prohibido en una zona concreta.]*

Orduan, lege horren ondorioa da daukagun egoera soziolingüistikoa. Egoera soziolingüistikoa irauli nahi baldin badugu, aldatu nahi baldin badugu, argi daukagu eta ekarri dugu. Hamar edo hamabost urtetan aldatu dezakegu zeharo egoera soziolingüistikoa, D eredua, euskaraz murgiltze eredua, progresiboki Nafarroa osoan hedatzen badugu. Desberdina izango da, eta Reparaz jaunak aipatu duen bezala ere, Vasuenceren Legea deitzen den zonalde euskaldunean dagoen egoera soziolingüistikoa eta hor emandako urratsak batzuk izango dira, eremu mixtoan beste batzuk eta deitzen den eremu ez euskaldun horretan beste batzuk, eta beste erritmo batzuekin izango dira.

*[Entonces, la consecuencia de esa ley es la situación sociolingüística que tenemos. Si queremos derruir la situación sociolingüística, si la queremos cambiar, lo tenemos claro y lo hemos traído. En diez o quince años podemos cambiar completamente la situación sociolingüística, si expandimos de manera progresiva el modelo D, el modelo de inmersión en euskera, en toda Navarra y, como ha dicho también el señor Reparaz, la situación sociolingüística y los pasos que se den en lo que la Ley del Vascuence denomina*

*zona vascófona serán unos, en la zona mixta otros y en la llamada zona no vascófona otros y se hará con otro ritmo.]*

Baina hezkuntza sistema giltza eta tresna izan daiteke egoera soziolinguistiko hori aldatzeko, benetan nahi badugu aldatu. Horregatik ere arduraz jokatzeko eskatu nahi dizuegu. Izan ere, esan dugun bezala, Nafarroako hezkuntza sistema prest dago, Nafarroako jendartea prest dago, ofizialtasunerako prest gaude, baina behar duguna ausardia da hemen, Parlamentuan. Eta 2015ean Vasuenceren Legea aldatu zela, orain eskaera da orain D eredu edo euskaraz bizi nahi duten familioi lege babesa ematea, euskarari bidea ematea orain arte debekatua egon den lekuetan eta parekatzea Nafarroako biztanleria osoari hizkuntza eskubideaz hitz egiten dugunean.

*[Pero el sistema educativo puede ser clave y una herramienta para cambiar esa situación sociolingüística, si de verdad queremos. Por eso también queremos pedirles que actúen con responsabilidad ya que, como hemos dicho, el sistema educativo de Navarra está preparado, la ciudadanía de Navarra está preparada, estamos preparados para la oficialidad, pero lo que necesitamos en la valentía en este Parlamento. Y ya que en 2015 se cambió la Ley del Vasuence, ahora la petición es que se les dé una protección legal a las familias que quieren el modelo D o vivir en euskera, que se le abra el camino al euskera en los lugares que hasta ahora ha estado prohibido y que se iguale a toda la ciudadanía de Navarra cuando hablamos de derechos.]*

Horregatik, mesedez, ez jarri egoera soziolinguistikoa aitzakia bezala. Egoera soziolinguistiko zehatz bat daukagu egoera politiko bat izan dugulako edo lege bat izan dugulako. Besterik gabe.

*[Por eso, por favor, no pongan la situación sociolingüística como excusa. Tenemos una situación sociolingüística concreta porque hemos tenido una situación política o una ley. Nada más.]*

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko berriz ere. Orain helduko diogu berriz ohiko ordenari, handienetik txikienera. Beraz hitza dagokio Geroa Bai Taldeko Alemán andereari. Hamar minutuko txanda daukazu.

SRA. ALEMÁN ARRASTIO: Egun on, Reparaz jauna, Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakaria, eta baita ere Iribarren jauna, Sortzen Elkarteko kidea. Mila esker anitz zuen adierazpenak eta horrelako azalpenak egiteagatik eta baita zuen ibilbidea erakusteagatik ere. Niretzat plazer handi bat izan da zuek hemen, Batzorde honetan, entzutea eta ikustea zein izan den zuen ibilbidea eta zuen traiektoria historikoa.

*[Buenos días, señor Reparaz, Presidente de la Asociación de Ikastolas de Navarra, y también al señor Iribarren, miembro de la Asociación Sortzen. Muchas gracias por sus comentarios y por realizar unas explicaciones así y también por mostrar su trayectoria. Para mí ha sido un gran placer tenerles aquí, en esta Comisión, escucharles y ver cuál ha sido el camino que han recorrido o su trayectoria histórica.]*

Gu ere anitzetan agertu gara ofizialtasunaren alde. Geroa Bai Taldea ofizialtasunaren alde agertu da eta lege berri baten alde gaude. Baina esan dugu hemen, Batzorde honetan,



ausardia behar dela. Eta nik uste dut ausardia baino gehiago, gehiengoa behar dugula. Eta hori da guk daukagun traba hemen, Parlamentu honetan. Orduan, ausardia eta gogoak behar dira, baina baita gehiengoa ere. Bertzela, ez dugu ezer aldatuko. Eta nik uste dut momentu honetan dugun egoerarekin hemen gaudela lanean Batzorde honetan, hemen zaudete, baina ikusten duzue Batzorde hau nola sortu den.

*[Nosotros también hemos aparecido en numerosas ocasiones a favor de la oficialidad. Geroa Bai se ha posicionado a favor de la oficialidad y estamos a favor de una nueva ley. Pero aquí hemos dicho, en esta Comisión, que se necesita valentía. Y yo creo que más que valentía, necesitamos una mayoría. Y ese es el obstáculo que tenemos aquí, en este Parlamento. Entonces, se necesita valentía y ganas, pero también la mayoría. Si no, no vamos a cambiar nada. Y creo que con la situación que tenemos ahora, estamos trabajando aquí en esta Comisión, ustedes están aquí, pero ven cómo se ha creado esta Comisión.]*

Batzorde hau sortu da eta zenbait talde ez dira etorri Batzorde honetara. Bagenuen esperantza bat, bederen, haiek etorriko zirela eta horiek entzun ahal izango genituela. Eta ikusteko nola bizi izan den hemen Nafarroan euskararen egoera eta nola batzuk uste dugun ondare bat dela eta ondare bezala zaindu behar dugula, bultzatu behar dugula eta pausuak eman behar ditugula horren alde, eta zelako politika publikoak egin behar diren horren alde, zein hizkuntza politika publikoak egin behar diren horren alde. Eta hori ez dela erdaldunak diskriminatzea erdaldun, baizik eta egin behar dela hizkuntza gutxitua eta gutxiengorena delako.

*[Esta Comisión se ha creado y algunos grupos no han venido a la misma. Teníamos una esperanza de que ellos vinieran y que podríamos escucharles. Y, al menos, ver así cómo se ha vivido aquí en Navarra la situación del euskera y cómo algunos pensamos que es patrimonio y que como patrimonio hay que cuidarlo, impulsarlo y que tenemos que avanzar a su favor, y qué tipo de políticas públicas hay que hacer a su favor, qué políticas lingüísticas públicas hay que hacer a su favor. Y que eso no es discriminar a los castellanoparlantes, sino que hay que hacerlo porque es una lengua minoritaria y minorizada.]*

Orduan, alde batetik bai, ausardia behar da, baina nik ere ikusten dut hemen Nafarroan errealitate bat daukagula, Parlamentu honetan. Ez dakigu daukagun gehiengo zein den. Hala ere, uste dut oso aberatsa dela Batzorde hau, beharrezkoa dela, eta nire pena da hemen bertze batzuk ez egotea, bertze ordezkari batzuk. Ez dakigu honen ondorioz izango dugun gehiengo hori aldatzeko. Baina gu ere ofizialtasunaren alde gaude uste dugulako nafar guztion hizkuntza eskubideak bermatu behar direla. Eta zelako tresna izan behar dugu hori egiteko? Lege berri bat. Guk ere uste dugu kontuan izan behar dugula askatasuna, borondatea edo modulazioa. Baina zuek ere aipatu duzue. Eta lege berri batean hori ere agertzen ahal da. Baina euskara ofiziala izan behar da Nafarroa lurralde osoan.

*[Entonces, por un lado, se necesita valentía, pero yo también veo que aquí en Navarra tenemos una realidad, en este Parlamento. No sabemos cuál es la mayoría que tenemos. Sin embargo, creo que esta Comisión es muy enriquecedora, que es necesaria y me da pena que otros no estén aquí, otros portavoces. No sabemos si como consecuencia de esto tendremos esa mayoría para cambiarlo. Pero nosotros también estamos a favor de*

*la oficialidad porque creemos que hay que garantizar los derechos lingüísticos de todos los navarros. ¿Y qué tipo de herramienta necesitamos para ello? Una nueva ley. Nosotros también creemos que tenemos que tener en cuenta la libertad la voluntad y la modulación. Pero eso lo han nombrado ustedes. Y en una nueva ley también puede aparecer eso. Pero el euskera debe ser oficial en toda Navarra.]*

Orduan, nik eskertzen dizkizuet emandako azalpenak eta, batez ere, mahai gainean jarri nahi dut zuek aipatu duzuen gauza bat eta nik feedback hori eman nahi dizuedalako, hemen zenbait talde gaudela eta aldatzeko gogoarekin agertu garela, baina, hala ere, ez dakigu zein emaitzak emanen dituen Batzorde honek eta ea izanen dugun gehiengo euskararen lege berri bat izateko.

*[Entonces, yo les agradezco las explicaciones ofrecidas y, sobre todo, quiero poner sobre la mesa una cosa que han comentado y les quiero dar ese feedback, que aquí estamos algunos grupos y que tenemos ganas de cambiarlo, pero, sin embargo, no sabemos qué resultados dará esta Comisión y a ver si tendremos la mayoría para tener una nueva ley del euskera.]*

Mila esker anitz zuen lanagatik euskara bultzatzeko eta zabaltzeko hemen Nafarroan, nahiz eta nik uste izan orain gauzak aldatu direla eta pausu batzuk eman direla aurrera. Nafarroan ere pausuk eman direla uste dut, 2015eko lege aldaketa, adibidez. Lege honetan zenbait lurraldeko herri batzuk zonalde ez euskaldunetik mixtura pasatu dira. Pausu batzuk eman dira eta guk uste dugu bertze pausu batzuk gehiago eman behar direla. Baina, hala ere, hemen segituko dugu lanean eta ea zer egiten dugun Parlamentu honetan. Mila esker anitz.

*[Muchas gracias por su trabajo para impulsar el euskera y para expandirlo aquí en Navarra, aunque creo que ahora las cosas han cambiado y que se ha avanzado un poco. Creo que en Navarra también se han dado pasos, por ejemplo, el cambio en la ley en 2015. EN esta ley algunos pueblos de la zona no vascófona han pasado a la mixta. Se han dado algunos pasos y nosotros creemos que hay que dar otros pasos más. Pero, sin embargo, aquí seguiremos trabajando y a ver qué hacemos en este Parlamento. Muchas gracias.]*

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko, Alemán anderea. baduzue berriz ere aukera zerbait esan nahi izanez gero erantzuteko.

SR. REPRESENTANTE DE NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA (Sr. Reparaz Leiza): Eskerrik asko. Ikusten dut bat egiten dugula proposamenarekin. Batzorde honetatik hizkuntz adituak pasa dira –ni ez naiz hizkuntzan aditua– eta lege adituak ere pasa dira eta uste dut hemendik pasatu diren pertsona horien mezuak norabide beretsuan doazela eta azkenean eskubideen alde ari direla.

*[Muchas gracias. Veo que estamos de acuerdo con la propuesta. Por esta Comisión han pasado expertos en lengua –yo no soy un experto en lengua– y también han pasado expertos en leyes y creo que los mensajes de las personas que han pasado por aquí van en el mismo camino y que al final se trata de derechos.]*

Orduan, espero dudana da hemendik pasatu diren pertsonak horiek nolabait beren mezuak kalatu izana eta beraien posizioak ere nolabait aldatzea edo berpentsatzea, uste dugulako honek ez duela inoren kontra egiten, baizik eta egiten duela herritarren eskubideen alde. Ez litzateke onartuko Nafarroan izatea, eman dezagun, abortu eskubidea Tuteran bai eta Iruñean ez. Orduan, nik uste dut hizkuntza eskubideak ere badutela garrantzi handia. Eta uste dut hori kontuan hartu behar dela. Eskerrik asko.

*[Entonces, lo que espero es que hayan calado los mensajes de las personas que han pasado por aquí y que hayan cambiado un en cierto modo sus posiciones o que las vuelvan a pensar, ya que creemos que esto no va en contra de nadie, sino que va a favor de los derechos de los ciudadanos. Por ejemplo, no se aceptaría que en Navarra en Tudela se tuviera el derecho al aborto y en Pamplona no. Entonces, creo que los derechos lingüísticos también tienen una gran importancia. Y creo que eso hay que tenerlo en cuenta. Muchas gracias.]*

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko. Orain, txandarekin jarraituz EH Bildu Taldeari dagokio eta, beraz, nik neronek hartuko dut hitza bere izenean. Nik lehendabizi, gogoetatxo bat egin nahiko nuke gehiengoaren kontu horren inguruan, askotan ateratzen ari delako. Uste dut gauzak argitu daitezkeela. Alde batetik, Parlamentu honetan baditugu hiru indar politiko oso garbi adierazi dutenak ez dutela inolako mugimendurik egin nahi hizkuntzaren ofizialtasunari dagokionez. UPN eta PP dira, honera etortzen ez diren bi indar politikoak, eta bestea PSN da, berak esan baitu ofizialtasuna lurralde osoan ez duela nahi. Oso gaizki ulertu ez baldin badut behintzat orain arte esandako guztia, uste dut PSN-k ez duela ofizialtasuna lurralde osora hedatu nahi. Horrela adierazi du behintzat. Beraz, hiru alderdi horiek dauzkagu posizio batean.

*[Muchas gracias. Ahora, siguiendo con el turno de palabra, le corresponde a EH Bildu, por lo que yo tomaré la palabra en su nombre. En primer lugar, querría hacer una pequeña reflexión sobre esa cuestión de la mayoría, ya que es algo que aparece muchas veces. Por un lado, en este Parlamento tenemos tres fuerzas políticas que han indicado claramente que no quieren hacer ningún movimiento en lo referido a la oficialidad de la lengua. Son el PP y UPN, las dos fuerzas políticas que no acuden a esta Comisión, y el PSN, ya que ha dicho que no quiere la oficialidad en todo el territorio. Al menos si no he entendido muy mal todo lo dicho hasta ahora, creo que el PSN no quiere extender la oficialidad a todo el territorio. Así lo ha expresado al menos. Por lo tanto, tenemos a esos tres partidos en una posición.]*

Badauzkagu beste lau indar politiko gure hauteskunde programetan jasota duguna zonifikazioa gainditu behar dela. Lau indar politiko horietatik hiruk Batzorde honetan bertan berretsi dugu ofizialtasuna lurralde osora zabaltzeko postura edo jarrera horretan gaudela. Hori berretsi egin dugu. Beste batek, Izquierda-Ezkerra Taldeak kasu honetan, hemen adierazi duena behin eta berriz da ez daudela, esan dezagun –edo nik behintzat horrela ulertu dut– ez daudela ez kontra ez alde. Hitz egiteko eta aztertze prest daude, baina jakin nahi dute ofizialtasun horrek zein ondorio dauzkan. Beraz, horregatik esan zuen Nuin jaunak Batzorde honetan artikulua bakarreko legerik ez duela nahi eta, orduan, inora iristekotan, zehaztasun batean izan beharko zuela. Baina haiek ez dute esan behintzat honen kontra daudenik.

*[Tenemos otras cuatro fuerzas políticas que en nuestros programas electorales teníamos recogido que había que terminar con la zonificación. De esas cuatro fuerzas políticas tres hemos ratificado en esta Comisión que estamos en esa postura o actitud de expandir la oficialidad en todo el territorio. Eso lo hemos ratificado. Otra, en este caso Izquierda-Ezkerra, lo que aquí ha indicado en repetidas ocasiones es digamos que no están ni en contra ni a favor, o al menos yo lo he entendido así. Están dispuestos a hablar y analizarlo, pero quieren saber qué consecuencia tiene esa oficialidad. Por lo tanto, por eso dijo el señor Nuin en esta Comisión que no quería una ley de un único artículo, por lo tanto, de llegar a algún lado, sería con una especificidad. Pero ellos al menos no han dicho que estén en contra.]*

Beraz, gehiengoaren aukera hori irekita dago eta paradoxikoa gertatzen da batzuetan Geroa Bai dela behin eta berriz gehiengoaren horretan zalantzan agertzen dela. Baina hori Izquierda-Ezkerrak ez du adierazi ez alde ez kontra dagoenik, beraz aukera irekita dago eta nik uste dut gehiengoa egon daitekeela. Baina gehiengo hori izango da, izatekotan, 26 boto horiek izango dituena. Batzuetan esan izan delako komeniko litzatekeela gehiengo zabal bat izatea. Jakina baietz, nik ere nahiko nuke PSN bera eta UPN eta PP etortzea ofizialtasunaren aldeko posizio horretara, baina hori ez da gertatuko, oso argi adierazi dutelako ezetz.

*[Por lo tanto, esa opción de la mayoría está abierta y resulta paradójico a veces que sea Geroa Bai quien continuamente ponga en duda esa mayoría. Pero eso no lo ha indicado Izquierda-Ezkerra, ni que esté a favor ni en contra, por lo tanto, la opción está abierta y yo creo que podría haber mayoría. Pero esa mayoría de ser será la que tenga esos 26 votos. Algunas veces se ha dicho que convendría tener una mayoría más amplia. Claro que sí, a mí también me gustaría que el propio PSN y UPN y PP vinieran a esta posición a favor de la oficialidad, pero eso no va a ocurrir ya que han dejado muy claro que no.]*

26 botoko gehiengo horrek izango luke zilegitasun osoa, noski. Gaur egungo egoerak beharbada ez dauka, gaur egungo euskararen estatusak, ez dauka gehiengoaren babesa eta hor dago. Beraz, uste dut gehiengora iritzi daitekela horretarako, hemen gauden indar politikook behar bezalako adostasuna lortzen baldin badugu. Baina hori lortuko dugu, seguru aski, hemen jada entzun ditugun ekarpen guztiak hartuta eta bakoitzak egiten ditugun planteamenduak hartuta. Hori mahai gainean jarri eta ea kapazak garen adostasun batera iristeko. Orduan ikusiko da gehiengoa daukagun edo ez. Baina gehiengo hori nik behintzat argitu nahiko nuke. Izatekotan, garbi dagoenez, adierazpen politikoak ildo horretan joan direlako, izango da 26ko gehiengo bat. Gure ikuspegitik behintzat, nahiko izango litzateke jarraitzeko euskararen aurrerabidean pausuak egiten.

*[Esa mayoría de 26 votos tendría total legitimidad, por supuesto. La situación actual, el estatus actual del euskera, quizá no tenga el apoyo de la mayoría, pero ahí está. Por lo tanto, creo que se podría llegar a la mayoría si las fuerzas políticas logramos el acuerdo necesario. Pero eso o conseguiremos, seguramente, teniendo en cuenta todas las aportaciones que hemos escuchado aquí y los planteamientos de cada uno. Hay que ponerlo encima de la mesa y a ver si somos capaces de llegar a un acuerdo. Entonces se verá si tenemos la mayoría o no. Pero a mí me gustaría aclarar algo sobre esa mayoría. De obtenerla, como queda claro ya que las argumentaciones políticas han ido en ese*

*camino, sería una mayoría de 26. Desde nuestro punto de vista, sería suficiente para seguir avanzando en el euskera.]*

Gaurko saioa, pixka bat irakaskuntzan zentratuta dagoela pentsatzen dut. Eragileak esparru horretatik etorri dira. Eta nik hor bai esan nahiko nukela, eta kasu honetan eragile batek esandakoari eutsiz, gaur egun Nafarroak daukan egoera soziolinguistikoa aldatu nahi baldin bada –eta hori da kontua, batzuek aldatu nahi dugula, beste batzuek ez, baina batzuk bai behintzat–, gehiengo batek aldatu nahi baldin badu, horretarako tresna batzuk badauzkagu eta horietako bat irakaskuntza da. Ez hemen bakarrik. Irakaskuntza sistema da edozein hizkuntza minorizatuen kasuan egoera aldatzeko eta iraultzeko erraminta, seguru aski, nagusia, populazioa euskaldundu dezakeelako, kasu honetan. Eta hori ezinbesteko baldintza da hizkuntza normalizatzeko.

*[Pienso que la sesión de hoy está un poco centrada en la educación. Han venido actores de este ámbito. Y yo ahí sí que querría decir, y en este caso en relación a lo que ha dicho uno de los actores, si se quiere cambiar la situación sociolingüística actual de Navarra –y es esa la cuestión, que algunos queremos cambiarla, otros no, pero algunos al menos sí, si una mayoría la quiere cambia, para ello tenemos algunas herramientas y una de ellas es la educación. No solo aquí. El sistema educativo es la herramienta para cambiar y darle la vuelta a la situación en el caso de cualquier lengua minorizada, seguramente la herramienta principal ya que puede euskaldunizar a la población en este caso. Y esa es una condición imprescindible para normalizar la lengua.]*

Hori nahi baldin bada, guk esaten dugu horrela nahi dugula eta irakaskuntza da tresna edo bitarteko estrategikoa zalantzarik gabe. Beraz, euskararen lege berri batek ere esparru hori arautu beharko luke. Oraingoak ere arautzen du, baina gure ikuspegitik behintzat 1986ko legea, nahiz eta 2015ean aldaketa garrantzitsu bat egin zen, aukera eremu ez euskaldunera zabaldu zelako, ez da nahikoa, ez du behar bezala edo behar adina arautzen dena egokitzen euskarak behar duenari. Orduan, uste dugu hor aldaketa bat behar dela. Ofizialtasunaren kontuaz gainera, irakaskuntzaren arautzeko modua ere uste dugu lege berri batean izan beharko lukeela argiagoa, zehatzagoa eta osoagoa. Eta irakaskuntza sistemak berak aldaketa sakona ere beharko luke alde horretatik.

*[Si se quiere eso, nosotros decimos que lo queremos así y la enseñanza es una herramienta o un medio estratégico sin lugar a dudas. Por lo tanto, una nueva ley del euskera también debería regular ese ámbito. La actual también lo regula, pero al menos desde nuestro punto de vista la ley de 1986, a pesar de que en 2015 se le hiciera un cambio importante ya que se extendió la oportunidad a la zona no vascofona, no es suficiente, no regula como se debe o lo suficiente para adecuarse a lo que necesita el euskera. Entonces, creemos que ahí se necesita un cambio. Además de la cuestión de la oficialidad, creemos que el modo de regular la enseñanza también debería ser más claro, concreto y completo en una nueva ley. Y por esa parte el propio sistema educativo también necesitaría un cambio.]*

Gure aspirazioa ere hemen azaldu izan dugu, gure indar politikoarena zein den eta da Nafarroan belaunaldi berriek gai izatea hemen erabiltzen diren bi hizkuntzetan eroso eta ongi eta nahikotasunez hitz egiteko. Alegia, gaztelaniaz eta euskaraz eta baita hirugarren hizkuntza

batean ere, atzerriko hizkuntza batean. Hori da gure aspirazioa, belaunaldi hau eta gazte guzti horiek bukatzea bere irakaskuntza prozesua eta bukatzen dutenean gai izatea gaztelaniaz ongi, euskaraz ongi eta baita beste hirugarren hizkuntza batean ere, ez maila berean, baina ongi aritzeko.

*[Nuestra aspiración ya la hemos explicado aquí, cuál es la de nuestra fuerza política, y es que las nuevas generaciones en Navarra sean capaces de hablar en las dos lenguas que se utilizan aquí de manera cómoda y bien y con suficiencia. Es decir, tanto en castellano como en euskera y también en una tercera lengua, en una lengua extranjera. Esa es nuestra aspiración, que esta generación y todos esos jóvenes finalicen su proceso educativo y que cuando acaben sean capaces de hablar bien castellano y euskera y también una tercera lengua, no al mismo nivel, pero sí que hablen bien.]*

Gaztelaniarena, mila aldiz esan dugun bezala, oso garbi daukagu, ziurtatuta dago. Gaur egun edozein herri euskaldunetan D ereduaren edo ikastolan ikasten duen ikasle bat hartu, etxean euskaraz egiten duena, bere bizitza osoa euskaraz egiten duena, eta lau urterekin seguru aski ez, sei urterekin beharbada ere ez, erdi elebakarra izango da seguru aski eta euskaraz ongi mintzatuko da baina erdaraz beharbada ez. Baina hamabi, hamalau edo hamasei urtekoak, horiek denek erderaz, gaztelaniaz, badakite, nahiz eta etxean ez duten sekulan ezer erderaz esan, nahiz eta kalean euskaraz egiten duten, nahiz eta beren bizitza euskaraz egiten dute. Gaztelaniak badauzka beste elementu batzuk pertsona horiek gai bihurtzen dituen gaztelaniaz ongi egiteko. Orduan, hor ez dago problemarik, ez dago zalantzarik. Gaztelaniak badauka hori bermatua.

*[Los del castellano, como hemos dicho mil veces, lo tenemos muy claro, está garantizado. Hoy en día si coges a un estudiante de cualquier pueblo vasco parlante que estudie en el modelo D o en ikastola, que hable euskera en casa, que haga toda su vida en euskera, y quizá con cuatro años no, quizá con seis tampoco, seguramente será medio monolingüe y hablará bien en euskera, pero quizá en castellano no. Pero todos los de doce, catorce o dieciséis años saben castellano, aunque en casa no digan ni una palabra en castellano, aunque en la callen hablen euskera, aunque hagan su vida en euskera. El castellano tiene otros elementos para que esas personas sean capaces de hablar bien en castellano. Entonces, ahí no hay problema, no hay duda. El castellano tiene eso garantizado.]*

Euskarak ez ordea. Horregatik da hain garrantzitsua irakaskuntza sistema bat gazte guztioi, baina gure ikuspegitik Nafarroa osoan, gaitasun hori emango diena. Euskarazko irakaskuntza hipotetiko batek ez die gaztelaniazko gaitasuna kenduko. Hori ez die kenduko, hori bermatuta daukate. Beraz, zeri begira jarri behar dugu, gure ikuspegitik? Helburua baldin bada Nafarroako hizkuntza propioa, Nafarroa osoan propioa dena, ez bakarrik lurralde batean ofiziala, lurraldearen zati batean da, bazik eta lurralde osoan propioa, hori nahi baldin badugu, eta hori guri aspirazioa da eta esaten dugu garbi, nafar guztiek ondarearen jabe izatea bestea galdu gabe, uste dut hor irakaskuntza sistemak oso garrantzi handia daukala eta hori egin dezakela. Eta hemen esan den bezala, tresnak badaude, eskarmentuak eta esperientzia askoz ere handiagoa da orain duela berrogei urte baino eta, badakigu orain hezkuntza sistema batek zer eman dezakeen. Hitzun eleaniztunak eman ditzake.

*[El euskera, en cambio, no. Por eso es tan importante un sistema educativo que les de esa capacidad a todos os jóvenes, pero en nuestra opinión en toda Navarra. Una enseñanza hipotética en euskera no les va a quitar la capacidad del castellano. No se lo quita, eso lo tienen garantizado. Por lo tanto, ¿en qué tenemos que fijar la mirada en nuestra opinión? Si el objetivo es una lengua propia de Navarra, que es propia en toda Navarra, no solo oficial en algunos territorios, en una parte del territorio, sino propia en toda Navarra, si queremos eso, y esa es nuestra aspiración y lo hechos dicho de forma clara, que todos los navarros sean dominen el patrimonio sin perder el otro, creo que el sistema educativo tiene una gran importancia y que lo puede hacer. Y como se ha dicho aquí, hay herramientas, las vivencias y la experiencia es mucho más amplia ahora que hace 40 años y ya sabemos que un sistema educativo qué puede dar. Puede dar hablantes plurilingües.]*

Horretarako eredua zein den? Oraingoz eraginkorrena, emankorrena eta lortu duena ikasleak gaztelaniaz eta euskaraz ongi mintzatzea hori D eredua izan da eta ikastolen eredua, hemen etorri den ordezkari hauek azaldu dutena. Horiek lortu dute gazteak izatea gaztelaniaren jabe eta baita euskararen jabe ere. Hori da orain arteko eredua. Egia da hori mahai gainean planteatzen ari dela, hizkuntzen trataera bateratua. Eta beste ideia batzuk ere badaude, jorrazeko daudenak eta nik uste dut hortik etorriko dela beharbada etorkizuna. Horrek ere azkenean helburu bera lortu beharko duela uste dut: pertsona gaituak lortzea hemen erabiltzen diren hizkuntza guztietan.

*[¿Cuál es el modelo para ello? Por ahora el más eficaz, fructífero y el que ha conseguido que los estudiantes hablen bien en castellano y en euskera ha sido el modelo D y el modelo de las ikastolas, los que han explicado los portavoces que han venido aquí. Esos han conseguido que los jóvenes dominen tanto el castellano como el euskera. Ese es el modelo que hay hasta ahora. Es cierto que eso se está planteando sobre la mesa, el tratamiento integrado de lenguas. Y también hay otras ideas, que se tienen que trabajar y creo que de ahí vendrá quizá el futuro. Creo que al final eso también tendrá que lograr el mismo objetivo: lograr personas capaces de hablar en todas las lenguas que se utilizando aquí.]*

Orduan, hori etorriko da. Beharbada goizegi da eredu hori formalki eta ongi lege berri batean txertatzeko oraindik heldu edo landu gabe dagoelako, baina uste dut hortik etorri ahal dela proposamen oso interesgarria eta bitartean guk bai planteatuko duguna –hori etorriko da hemen proposamen zehatzak egiten hasi behar dugunean– gure ikuspegitik behintzat ezinbestekoa da Nafarroako ikasle guztiek gaur egun eta jada epe motzean euskararekin nolabaiteko gutxieneko harremana izatea. Ez du zentzurik gure ikasle guztiek, iparraldetik hasita eta hegoalderaino, ehundaka ordu pasatzea ez ofiziala ez bertakoa ez erabilera sozialik ez duen hizkuntza bat ikasten, ingelesa, nahiz eta gu ados egon ikasi behar dutela, baina gazte horiek pasatzea ehundaka ordu ingelesa ikasten eta batzuek, zero ordu, bat ere ez, ez ematea bertakoa den hizkuntza bat ikasten.

*[Entonces, eso llegará. Quizá sea pronto para introducir ese modelo formalmente y bien en una nueva ley ya que todavía está sin trabajar, pero creo que de ahí puede venir una propuesta muy interesante y mientras lo que nosotros hemos planteado –eso llegará*

*cuando tengamos que empezar aquí a hacer propuestas concretas–, al menos desde nuestro punto de vista, es imprescindible que todos los estudiantes de Navarra en la actualidad y ya a corto plazo tengan cierta relación para con el euskera. No tiene sentido que todos nuestros estudiantes, empezando en norte y hasta el sur, se pasen cientos de horas aprendiendo una lengua que no es ni oficial ni propia ni tampoco tiene uso social, como es el inglés, aunque nosotros estemos de acuerdo en que hay que aprenderlo, pero que esos jóvenes se pasen cientos de horas aprendiendo inglés y algunos cero horas, ni una solo, aprendiendo una lengua propia.]*

Gure ikuspegitik behintzat hori gazte guzti horiei kentzen ari garen zerbait da eta uste dut hori ez dela zuzena eta badaudela arrazoi nahikoak esateko euskara ere integratu behar dugula irakaskuntza sisteman bere osoan. Eta arrazoiak dira bertako hizkuntza bat dela, populazioaren zati bat hizkuntza horretan bizi dela, kohesio sozialerako tresna bat dela, ate batzuk ireki ditzakela eta Nafarroako bizitza kultural eta sozialaren zati bat ere euskaraz egiten dela eta herritar guztiek izan beharko luketela sarbidea hemen dagoen bizitza sozial eta kultural osora.

*[Desde nuestro punto de vista es algo que les estamos quitando a esos jóvenes y creo que eso no es correcto y que hay razones suficientes para decir que el euskera también lo tenemos que integrar en el sistema educativo en toda su plenitud. Y las razones son que es una lengua propia, que parte de la población vive en esa lengua, que es una herramienta para la cohesión social, que puede abrir algunas puertas y que parte de la vida cultural y social de Navarra se hace en euskera y todos los ciudadanos debería poder tener acceso a toda la vida social y cultural que hay aquí.]*

Beraz, badauzkagu nahiko arrazoi eta, esan bezala, uste dugu irakaskuntzak izan behar duela honetan guztian erabateko giltzarria. Besterik ez.

*[Por lo tanto, tenemos suficientes razones y, como he dicho, creemos que la enseñanza tiene que tener la clave general de todo esto. Nada más.]*

Hau bukatuta, berriz emango dizuet hitza nahi izanez gero zerbait adierazteko edo erantzuteko.

*[Finalizado esto, vuelvo a darles la palabra para que comenten algo o respondan si así lo desean.]*

SR. REPRESENTANTE DE SORTZEN ELKARTEA (Sr. Iribarren Galbete): Zaila da zeozer gehitzea. Besterik gabe aipatzeagatik ere, eta nire bizipen pertsonaletik esan nahi dut nik G ereduan ikasi nuela, gaztelera hutsez ikasi nuen. Nire auzoan eta nire auzoko eskola publikoan gaur egun D eredua badago eta ikasle guztiek euskarazko murgiltze ereduan ikasten dute. Eta nik ere ikasi behar izan nuen euskara gaztetan. Askotan pentsatu dut gastatu dudan dirua eta gastatu dudan denbora euskara ikasteko zer erraza izango zen hor eskolan hori lortu izan banu edo bermatua egon balitz.

*[Es difícil añadir algo más. Simplemente por comentarlo y por mi experiencia personal quiero decir que yo estudié en el modelo G, completamente en castellano. Actualmente en mi barrio y en la escuela pública de mi barrio existe el modelo D y todos los estudiantes estudian en el modelo de inmersión en euskera. Y yo también tuve que*



*aprender euskera de joven. Muchas veces he pensado en el dinero y el tiempo que he gastado para aprender euskera y qué fácil hubiese sido si lo hubiera logrado en la escuela o si estuviese garantizado.]*

